

## **Gaur izan balitz!**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-05-09: 2.

Haurduna urduri zegoen goizalde hartan, eta senarra ere bai, noski; Andoainen egunero jan behar zuen bikote gazte hark, eta zetorren lehensemeak ere bai. Ama izango zenak pasa zion bere kezka gizonari, gaurko minak erditzearen seinale izan daitezkeela!... Hala bazen, bera geratuko zela aita izan arte. Azkenean, emakumezkoak izan ohi dira estualdietan ausartenak eta utzi zion senarrari goizean Plazaolako tren txikia artzen!; irten zen bi zaku bete aitzur-kirten, haragia txikitzeke ola, esekitoki, balezta, mortairu eta beste, denak Pello berak eskuz eginak, eta Irurtzungo ferian ongi saltzen zirenak, batez ere gaurko San Martinetan jendea erruz izaten da, aidanean. Hala esaten zion senarrak, esnedunak fabulan bezala kontu arinak ateratzen... Eskerrak Ageda bizilagunari dei egin ziola, honek erabaki zuen Amilibia sendagileari deitzea. Haurra jaio zen, ongi. Luze egin zitzairen Pelloren ausentzia. Noski, orduan, 1921.go azaroak 11, ez baitzen oraindik Leitzarango autobiarik egin, ezta esku-telefonorik inbentatu ere! Gaur izan balitz, deia egin eta errepede berritik etortzeko lain denbora izango zuen Pellok, Anttoni emaztearekin bikotea hiru egiteko misterio zaharra berritzearen lekuko izan zitezten. Baina, bestalde, ordea, gauzak hain garaiz eta erraz etor balira ez nintzen orain amak kontu-kontari esandako nere jaiotzaren peripezia deskribatzeko zutabetxo hau idazten ariko!